

Ze barri?

ESKORIATZA eta GATZAGAKO HILABETEKARIA

41 zkia.

Urlatik Landetara

Elkarrizketa:

Gregorio Gracia pilotagilea

Erreportaia:

Aintzinako lanbideak
berreskuratzen

Gazte txokoa: Udararako liburu
gomendioak eta lehiaketa

**Heldu da uda, heldu
dira San Pedroak**



Musakola Auzoa, z/b 20500 ARRASATE
 Tfnoak: 943 79 18 80 / 943 79 21 25 / 943 79 24 11 Faxa: 943 79 21 25




Udalaitz, S.L.



Aluminios
KURTZEBARRI
 Aluminioak

**ALUMINIOA/P.V.C.α/POLIURETANOA
 ALUMINIOA-EGURRA
 PERTSIANAK ETA OSAGAIK**



Araba Ibilbidea, 17
 Tel: 943 79 28 41 • Fax: 943 79 79 06
 20550 Aretxabaleta (Gipuzkoa)
 E-mail: kurtzebarrilehioak@euskalnet.net

Alkatearen agurra

San pedro 9, 1 behea
20540 ESKORIATZA
Tel. 943 71 54 34

ARGITARATZAILEA:
AXTROKI
Kultur Elkarte

ERREDAKZIO KONTSEILUA:
Imanol Garmendia
Garikoitz Kortazar
Andoni Bengoa
Lorea Agiriano

KOLABORATZAILEAK:
Aitor Uribetxeberria
Aitor Urrutia
Asier Errasti
Juanma Pagalday
Iñaki Agiriano
J.J Arrieta
Jon Errasti
Museo Eskola
Lourdes Martinez
Eduarne Unzueta

INPRIMATEGIA:
Eguzkigraf, Koop. Elk.

TIRADA:
2.000 ale


LEGE GORDAILUA:
SS - 200/99

ISSN:
1139-9856

ZE BARRI? aldizkaria ez da kargu egiten
aldizkarian adierazitako esanekin eta
iritziekin.



ESKORIATZA



**Eskoriatzarrek
Udalaren gidaritza
nagusia EHren esku
uztea erabaki
zutenean, nire ustez,
aldaketa bat
eskatzen zuten.**

Eskoriatzarrek Alkate izendatu nindutenetik urte bete pasa denez, ZE BARRI? aldizkaritik eskatu didate SAN PEDRO jaietarako argitaratuko den ale berezian balorazio txiki bat egin dezadala. Saiatuko naiz, bada, urtebetea lerro hauetan laburbiltzen.

Eskoriatzarrek Udalaren gidaritza nagusia EHren esku uztea erabaki zutenean, nire ustez, aldaketa bat eskatzen zuten. Horregatik guztioi pazientzia apur bat eskatzen dizuet eta gugan konfidantza izaten jarrai dezazuela, izan ere gauzak ezin baitira egun batetik bestera aldatu. Benetan diotsuet gainera, bide onetik goazela uste dudala.

Legealdi hasierako helburu nagusia udalean ordezkatutako alderdi guzti-guztiek Udal Gobernuan parte hartzea izan zen. Helburua lortu genuen eta gaur egun zinegotzi

guztiek dute arlo baten edo beste baten erantzunkizunen bat.

Dena den, badakit, Alkatearen figura dela beti azpimarratu ohi dena, baina niri gustatuko litzaidake herritarrak konturatzea Udalaren gestioa udalkide guztioi ahalbideratzen dugula, baita langileek ere. Horregatik, onerako nahiz txarrerako, denok gaude gupil berean sartuta.

Urtebete honetan hainbat proiektu gauzatu ditugu. Hilabete honetan, esate baterako, hasiera eman zaie Industrialdeko obrei, kiroldegiko kanpoaldea solarium eta umeentzako igerileku izateko egokitu dugu, LUDOTEKA ere irekita dago dagoeneko... Apurka-apurka bagoaz gauzak eginez eta gainera hurrengo urteetan gauzatuko diren hainbat proiektu ere enkargatuta ditugu. Beraz, badugu lanik.

**Apurka-apurka
bagoaz gauzak
eginez eta gainera
hurrengo urteetan
gauzatuko diren
hainbat proiektu ere
enkargatuta ditugu.
Beraz, badugu lanik.**

Azkenik, jaietan gaudela aprobetxatuta, denoi ondo pasatzea opa dizuet eta arrazoi bat edo beste, gure artean egoterik ez duten guztiei agur berezia luzatzen diet.

Edorta Zubizarreta

LABURREAN

Gaztekantoi Udalekuak

Eskoriatzako Gazteri Zerbitzuak "Gaztekantoi" udalekuak antolatzen ditu udara honetarako.

"Gaztekantoi".- zer da? 13-16 urte bitarteko gazteentzako udalekuak

Egunak: uztailaren 10etik 21era

Ordutegia: goizeko 11etatik ordu batetara eta arratsaldeko 3retatik 5etara

Izena emateko epea: ekainak 14, asteazkena

Prezioa: 6.000 pta.-

Egingo diren ekintzak: submarinismoa, piragua, tailerrak, mendi irteerak, igeriketa, akanpada, etabar luze bat.

Madriletik Elgea ikustera

Ekainak 21ean, Elgeako Parkea ikustera datoz Madrileteko Instituto Nacional Geográficoako teknikariak. Zita goizeko 9etan Ozaetan izango da. Ikuskapen lan honen helburua zera da, parkea nola eraikia izan den ebaluatzea eta neurri zuzentzaileak hartzea behar izanez gero.

Kiroldegiko garajeak

Eskoriatzako Udalak kiroldegian 15 garaje plaza utzi ditu alokatzeko moduan. Garaje horietako bat erabiltzeko nahia duten guztiek eskaria Udaletxean aurkeztu beharko dute Uztailaren 7a baino lehen (eguerdiko 13:30ak aurretik). Alokairu horrek dituen baldintzei buruzko informazioa Udal bulegoetan lortu ahal izango da (eguneroko 10:30etatik 13:30etara eta ostegunetan 16:00etatik 18:00etara).

VI. FERIXIA ARGAZKITAN



Ezkerrean: Gregorio Gracia Eskoitzarrak pilotak egiten abila dela erakutsi zigun. Bertatik bertara ikusi ahal izan genuen nola egiten diren eskuzko pilotak.

Behean: Herriko nahiz kanpoko jende asko erakarri zituzten plazan eta inguruko kaleetan jarririko postuek.



Eskulan ezberdin asko ikusi ahal izan ziren; zatoak, baserriko ogi eta beste jaki goxoak, etabar. Goiko irudian, kolore bizitako egurrezko itsasontziak zituen postua.

HAURREN IGERILEKUA ZABALIK

Joan den ekainaren 17an zabaldu ziren Eskoriatzako Kirolddegiko igerileku berriaren ateak. Igerilekua haurrentzat egina da, eta badu gainera zelai handi bat eguzkia hartzeko. Lanak atzeratuta zeudala bazirudien ere, azkenean lortu dute uda baino lehen irekitzea. Udako lehen beroekin batera amaitu dira lanak eta orain

denok, baina batez ere haurrek, gozatuko dugu igerileku berri honekin. Gainera, aterpeko igerilekuaren kanpoko lehioak irekitzeko asmoa dute, eta udan bi igerilekuak egongo dira erabilgarri.

Igerilekua ireki zenetik bero handia egin du jada eta arratsalde partean herritar asko hurbildu izan da bertara.



Igerileku berria haurrentzat soilik izan arren, bere atzekaldeko zelaia solarium egokia da eguzkia hartu nahi duten guztientzat

Ekainaren hiruan ospatutako Baserri Produktuen VI. Ferixian lehiaketa ezberdinak izan ziren, guztira 82 pertsonek partehartu zuten eta sariak modu honetan banatu ziren:

Baserriko produktuak: Mendiola-Marin patxarana

Artisautza: Gregorio Gracia pilotagilea

Abereak: Surum baserriko hegaztiei

Kanpoko postuak: Jakion (Gatzaga)

Txorimalo lehiaketa:

4-10 urtekoen artean txapelduna Punky. Iker. L., Julen. L., Adrian B, Jon A, eta Ander E. 2. Mailako ikasleak.

10 urtetik gorakoen artean txapeldunak hauek izan ziren, Igor L, Mikel O, Jon Z, Ibai A, denak DBH lehengo mailakoak. Hauek ez zioten talde edo txorimaloari izenik ipini.

Enbor lehiaketan:

Lehen saria, Ramon Errastik atera zuen, 12 enbor asmatu zituen.

Bigarren saria, Igor Geretxeak jaso zuen, 10 enbor asmatuta.

Hirugarren saria, Agurtzane

Orbegozok atera zuen 9 asmatuta.

SAN PEDRO TXIKI ETA INTXAURTXUETAKO JAIAK

Aurtengoan ere, herriko jai nagusien aurretik San Pedro txikiak ospatu dira. Jaia ostiral arratsaldean hasi zen ohizko Txupinazioarekin, ondoren buruhandiak eta Afari Popularra egon zen. Giro aparta egon zela aipatu behar, ilargi bete eta eguraldi epelak asko lagundu baitzuten. Bigarren egunean, larunbatean, Diana, haur jolasak eta ondoren txikiteo popularra egon zen. Hauek ere bero izugarriarekin ospatu ziren eta seguro bati baino gehiago eguzkiak edo



Haurrek etengabe jolasteko aukera izan zuten Haur Parkean.

txikiteoan hartutako ardoek buruko min ederra utzi ziotela. Gaez, dantzaldia, queimada eta pintxadiskek alaituriko jaia ospatu ziren. Hurrengo egunean, ajea ez zeukatenek bere abileziak erakutsi zituzten txoznan ospatu zen Tortilla Lehiaketa Handian. Jaia handi hau amaitzeko bazkari herrikoia egin zuten, Paella Izugarria dastatu zutelarik.

Hainbeste saltsa-maltsa eta gero, atsedean hartu beharko da, San Pedroetan berriz ere parranda egiteko.

KURTZO AMAIERAKO FESTAK FAKULTATEAN

Azterketa gogorren ondoren kurtsoa amaitu da Eskoriatzako Fakultatean. Ikasleak pozik, egindako lanaren fruituak aurkituko dituzte begibistan dugun uda luzean. Batzuk lana egin beharko dute, besteak atzerrira joan baina denek sentimendu bera izango dute. Azkenean amaitu dira ditxosozko azterketak. Halere, azken hilabetetan ez da dena lan eta sakrifizioa izan Huhezin, egon dira festarako momentuak eta horren lekuko maiatzaren 26an egindako Festa handia. Goizez, futbito eta frontenis finalak jokatu ziren, eguerdi partera, literatur sarien banaketa eta ondoren trikipoteoa eta bazkaria. Gero eta jende gehiago hurbiltzen da Fakultatean antolatzen den jai honetara, urtetik urtera arratsalde partean agertzen den "kanpotarren" kopurua handiagoa da.



Bi ikasle pankarta bat jartzen



Kurtso amaierako festa, jendez gainezka

Nahiz eta festa giro onean ospatu zen, zoritxarrez Fakultateko zenbait lekutan txikizioak egin zituzten, kabinak puskatu, etabar. Horrelako jarrerak festa polit hau apur bat ilundu egiten dute zoritxarrez.

Bestalde ekainaren 2an kurtso amaiera festa ospatu zen. Hau modu formalagoan, diploma eta orla banaketa bertan egin zelarik. Aurten irakasletza ikasketak amaitzen dituzten ikasleak bertan izan ziren Dekanoaren hitzak adi adi entzunez eta ondoren izan zen lunch goxoa dastatuz.

SAN PEDROEN ATARITAN

Iritsi da uda, iritsi dira jaiak, izenburu hori eman diogu oraingoan gure aldizkariari. Eta egia da, iritsi da beroa, iritsi da San Juan sua, San Pedro eguna. Baina... zer egin dezakegu aurtengoan San Pedrotan. Batek baino gehiagok parrandarako gogo izugarria duela seguru, baina honetaz aparte gauza asko eta asko daude ikusteko nahiz partehartzeko.

Ekainaren 28an egingo da Txupinazioa (aurten ez dago pregoilaririk), eta egun berean, gauz nagusien tanborrada ospatuko da. Hurrengo egunean, Euskal Herri osoan oso ezagunak egin diren Tirri Tarra

Pasaitarrak etorriko dira bere show ikusgarria eskeintzera. Teatroa gustokoa dutenentzat, ekainaren 30ean "Bonbero eroak" antzezlana aurkeztuko dute "Hankagorri" taldekoek.



Kirola duzuela gustoko, eta konkretuki esku pilota, orduan ikaragarizko aukera duzu momentuan punta puntan dauden pelotariak Eskoriatzako Frontoian ikusteko. Titin, Lasa, Etxaniz eta Elkoro, egungo pilotari onenetakoak dira eta hauekin batera bikotea osatuz Eskoitzako bi pilotari profesionalak arituko dira, Zabala eta Iñurrategi.

Egun berean, eta ordu berean, musika nahiago dutenentzat, Rock Jaialdia. "La Polla Record" eta beste bi taldeekin. Jaiari amaiera emateko Euskal Jaia egingo da zapatuan.

TOKI ALAI

Taberna
Tfnoa.: 714729

**KARAJILOETAN
ESPEZIALIZATUA**

LENIZ
ESKORIATZA

Aingeru Ibiltokia, z/g.
Tfnoa.: 943 715061

SUZUKI

TXAPA, MARGOA eta MEKANIKA

REPARACIONES LENIZ, C.B.

EROSLE

**HARATEGIA,
FRUTATEGIA eta
BESTELAKOAK**

Aranburuzabala, 3
Tfnoa: 943 714546

EUSKARA BATZORDEAK ANTOLATURIKO ESALDI LEHIAKETA 2000

Eskoriatzako Udal Euskara Zerbitzuak antolatuta "Bota zure esaldia" lehiaketa burutu da azken asteetan Eskoriatzan. Lehiaketa honen xedea Euskara erabiltzeko lemak asmatzea izan da eta helburua Euskara eta gazteen arteko konpatibilitatea erakustea, euskaraz desmadratu, ligatu, solas egin, barre egitea...

San Pedroetarako lema irabazlearekin kartelak egin dira eta beste hiru esaldirekin ere pegatinak. Lehiaketan, guztira 23 esaldi aurkeztu dira eta denera 27 pertsonak partehartu dute lehiaketa honetan zazpi talde ezberdinetan banaturik. Aurkeztutakoen adina 12 urtetatik 44ra bitartekoa izan da.

Balorazioa egiterako garaian kontutan hartutako puntuak hauek izan dira:

- Esaldiak "lema" egitura izatea, doinua edukitzea...


- Euskara erabiltzeko gonbidapena egitea.

- Euskara eta erabilera esparru ezberdinak lotzea (jaietan erabiltzea, ligatzeko erabiltzea, gazteek erabiltzea...).

Talde irabazlea (Xaramela) hiru anai arrebek osatutako taldea izan da. Ander, Lorea eta Aintzane Agiriano Eskoitzarrak izan dira esaldi irabazlearen egileak.

Hauek dira aurkeztu diren esaldi guztiak:

1. Euskara gure esku dago itxaropena baldin badugu (Gugeu).
2. Independentzia lortzeko denok bat izan behar gara (Jomari).
3. Askatasuna lortzeko euskera bizitzeko (Jomari).
4. Arantzak lurpean, txakurrak kaiolan, txoria airean eta lorea mendian (Jomari).
5. Arantzak lurperatuz. Euskadi aireratu (Jomari).



6. Ta hi zeñena haz? (Hankamotx)
7. Loreari ura emanez, hazi egiten da, gure herriari euskera emanez zabaldu egiten da (Rapiunak).
8. Euskaraz nonahi eta noiznahi (Rapiunak).
9. Euskera bihotzean eta euskera ezpainetan (Rapiunak).
10. Euskeraren ateak zabalduz gure bihotzak maitatuz (Rapiunak).
11. Eskoitzan jaietan egunez nahiz gabez kalera errez ta etxera nekez (Xaramela).
12. Eskoitzako jaietan erderaz jurau baina euskeraz ligau (Xaramela).
13. Euskerie ibilixaz kantzau biherrien inddertu gastau biherrien gehittu (Xaramela).
14. Tabernan, kalien edo plazan sartu kalabazan euskeraz eizu ta euskalduna izan (Xaramela).
15. Urtien zihher serio jaietan indio ta guretako premio! (Gosie pasautakuok 41kuak).
16. Txo, animatu ta gure San Pedroek gozatu !! (Gosie pasautakuok 41kuak)
17. Lotsak uxatu ta San Pedroek Euskaraz gozatu! (Gosie pasautakuok 41kuak)
18. Kukue mutuketan danien, eskoitzarron txandiea. San Pedroek 2000 (Gosie pasautakuok 41kuak).
19. Jarein kezkie ta ekien festei (Gosie pasautakuok 41kuak).
20. Kukua mutuketan atso-agurak barriketan ta zu zetan? etorri jaietan! (Gosie pasautakuok 41kuak).
21. Guztiona bada adierazi hitzez (aizpahandiak).
22. Nahi eta ahal dugun bezala, gauza guztien gainetik hitzegin dirudiena bainao beranduago da eta (aizpahandiak).
23. Bihotzean daukaguna nahi izanez gero eman dezakegu (aizpahandiak).

Goitb

Goiena Telebista

Arazo batzuk zirela medio, haseran ezin izan zen GoitB Eskoriatzan ikusi. Arazoak konpondu dira eta telebistako 26. kanala bilatzen baduzu bertan ikusi ahal izango duzu ondorengo programazioa.

OSTIRALA

13:30 Albiste aurrerapena
13:40 Gatza eta Berakatz
13:50 Ekilan (errepika)
20:00/20:30/21:00 Berriak
22:00 Gatza eta Berakatz(errepika)
22:15 Soinuz Blai (errepika)

LARUNBATA

13:30 Asteko saioen errepika:
Jolaplast, Gatza eta Berakatz,
Hamaika Magazin, Herriz Herri
Zer Berri?, Ekilan, Soinuz Blai,
Astebete.

IGANDEA

13:30 Asteko saioen errepika:
Jolaplast, Gatza eta Berakatz,
Hamaika Magazin, Herriz Herri
Zer Berri?, Ekilan, Soinuz Blai,
Astebete.

ASTELEHENA

13:30 Albiste aurrerapena
13:40 Gatza eta berakatz
13:50 Astebete (errepika)
20:00/20:30/21:00 Berriak
21:30 Goienasport

22:00 Gatza eta Berakatz

ASTEARTEA


13:30 Albiste aurrerapena
13:40 Gatza eta Berakatz
13:50 Goienasport (errepika)
19:20 Jolaplast
20:00/20:30/21:00 Berriak
21:30 Hamaika Magazin
22:00 Gatza eta Berakatz
(errepika)

ASTEAZKENA

13:30 Albiste aurrerapena
13:40 Gatza eta Berakatz
13:50 Hamaika Magazin
(errepika)
20:00/20:30/21:00 Berriak
21:30 Herriz Herri Zer Berri?
21:30 Gatza eta Berakatz

OSTEGUNA

13:30 Albiste aurrerapena
13:40 Gatza eta Berakatz
20:00/20:30/21:00 Berriak
21:30 Musiklasik
22:00 Gatza eta Berakatz
(errepika)
22:15 Soinuz Blai



Lorea Agiriano 21 urteko Eskoitzarra GoitB-n lanean hasi da, bera izango da Eskoriatzaren aurpegia telebista berri honetan.

Zer da GoitB?

Telebista bat, bailarako herriak eta telebistak batzen dituena. Telebista lokal bat.

Eskoitzan ikusten al da?

Bai, bilatuz gero 26. kanalean, antena3 ondoren.

Zer eskeintzen digu GoitBk eskoitzarroi?

Bailarako beste herrien berri izatea aberasgarria iruditzen zait, gainera herri hauek ideiak aportatuko dizkigute herri ekimen ezberdinak gure herrian aplikatzeko.

Ia 4 urte Ze Barri? n egon ondoren, aldaketa handia somatu al duzu prentsa idatzitik telebistara?

Bai, aldaketa handia da. Idazteko modu bera aldatzen da eta notizia emateko modua ere bai. Irudiekin koordinatu behar dira testuak eta horrek gauza pixka bat konplikatzen du.

Kostatu al zaizu kamara aurrean jartzea?

Hasera batean bai, baina gero ohitu egin behar zara, geroz eta normalagoa egiten zaizu.

Gustora lanbide berrian?

A tope baina gustora.

Barandiarán
OINETAKOAK
Arana, 19 • Tfnoa: 943 794970

ALDI
JANARI DENDA
Hidalga, 8
Tfnoa: 943 71 45 42

Gaztañadui, 21

Xarmanta
Tf. 715387 • ESKORIATZA

GREGORIO GRACIA

Pilotagilea

Pilotaegile, pilota profesionaleko epailea, baina batez ere esku pilotako afizionatu handia dugu Gregorio Grazia eskoitzarra. VI. Artisau eta baserri produktuen Ferixian ere bera izan genuen artisauen artean garaile.

1. Nola eta noiz sortu zitzaizun pilotak egiteko afizioa?

Gutxi gora behera 14 urte nituenean hasi nintzen. San Viator ikastetxeke erlijio gizon batek, Luis izenekoak, erakutsi zidan eta hor hasi zitzaidan afizio hau sortzen. Haseran zigortuta geratzen ginenean egiten nituen pilotak, baina gero Arrasatera ikastera joan nintzenean, orduan afizioz egiten nuen, gustatzen zitzaidalako.

2. Nola definituko zenuke zure lan hau, ofizio edo afizio?


Ez, ez afizioa da soilik. Niri pilota asko gustatzen zait, jolastea, partiduak ikustea, asko atsegin dut. Gainera badakizu pilotak egitea ez da erraza, inoiz ez dira bi pilota berdinak ateratzen, denak ezberdinak dira. Noizbait etorri zaizkit galdezka ea nola egiten ditudan pilotak, eta nik ez dut arazorik izan hauei esateko, hori bai, beti gordetzen duzu detailetxoren bat esaten ez duzuna, sekreturen bat, denok egiten dugu hori.

3. Gaur egun polemika handia dago erabiltzen diren pilotekin ze iritzi duzu?

Nire ustez gaur egungo pilotak diametro txikiagoak dira, lehenagokoa handixeagoak ziren. Aspaldiko pilotak, bote erdikoak ez dira jada ikusten frontoietan, edonork bota dezake pilota erreboteraino eta horrek pilotari kalte egiten dio, ez direlako pilotari trebeak ikusten, horrela ez dira artistak ateratzen eta pilotak ere bere Romarioak behar ditu.

4. Epaile bezela ere ibiltzen zara, kontaguzuz...

Deitzen didatenean joaten naiz. Garai batean epaile lizentzia atera nuen eta nola arauak esaten duten epaile lizentziadun bat beharrezkoa dela deitu egiten didate. Baina, askok ez dute epaile izan nai ze ez duzu partidua ikusten eta nahiko tentsioan zaude. Gainera batzutan jendearen txistuak ere entzun behar



izaten dira. Ez da, halere oso ohizkoa, jendeak diru asko jokatu arren kirol noblea delako. Ez da aparteko istilurik gertatzen, noizbehinka txistu batzuk baina lehen esan bezala uste dut kirol noblea dela.

5. Zer botatzen duzu faltan edo zer egingo zenuke Eskoriatzan pilotaren alde?

Pilota munduan asko sufritzen da eta horregatik gazte askok futbolera, edo beste kiroletara jotzen du. Gazteak joan egiten zaizkigu beste kiroletara, hala eta guztiz ere, orain telebistarekin afizio pixka bat gehiago ikusten da berriz ere

VILLAR
APAINDEGIA
 Tfnoa.: 943 715042

GOLO
GAZTE
MODA
 Arana kalea, 13
 Tfnoa.: 943 71 42 99

AZKOAGA
ESTANKOA
Zure Zerbitzura

SAJON DE BELLEZA

DORLETA
 Aranburuzabala, 22 -bajo
 Tfnoa.: 71 51 20

ALPARGATEROAK ETA ERREMENTARIAK, AINTZINAKO OFIZIOAK IKUSGAI

Ekainaren 28tik uztailaren 2ra bitarte, Eskoriatzako Museo Eskolak garai batean herri honetan hain garrantzitsuak izan ziren bi ofizio hauek erakusketa batetan berreskuratuko ditu. Herritar guztiok ikusi ahal izango dugu nola lan egiten zuten duela ez honenbeste urte Eskoriatzan eta inguruko herrietan. Euskal jai egunean errementari bat etorriko da eta demostrazio bat egingo du kalean. Baina zergatik Alpargatero eta errementariak, ze garrantzi izan zuten gure herrian?

Denbora askoan zehar, mendeetan zehar, Deba goienan, garaian edo hobe esan Leniz inguruan, bi lanbide hauek oso hedatuak zeuden eta hemengo ekonomiaren sustarri izan ziren. Honen arrazoi nagusia, zera zen, nekazaritzarako lur egokiak ez ziren inguru hauek eta bertako biztanleek beste lanbide batzuk

hartu behar izan zituzten, bizirauteko. Gainera inguruan zegoen burdin eta beste metalen ugaritasunak eta ikatza egiteko egur ugaritasunak asko lagundu zuen batez ere herrementarien zabalkuntzan. Egia esateko, zelten garaitaraino joan behar gara, ikusteko zeintzu izan ziren lehenak burdina lantzen inguru hauetan.

Horren arrasto argiak daude (Axtrokin azaldutako ontziak eta inguruko elementu megalitikoak, menhirak eta beste harri batzuk).

Inguru hauetan burdina lehenik nork landu zuten ikusteko Zelten garaitaraino joan behar gara

Ondoren erromatarrak etorri eta hauek ere burdingintzan aritu ziren. Erromatarrak hemen egon zirenen arrastoak aurkitzen dira eta froga idatzirik ez badaude ere, pentsatzen da beraiek izan zirela lehenak Aitzorrotz gainean zerbait eraiki zutenak. Eraikin hau Araba aldetik norbait zetorrenean ikusteko leku aproposa baitzen. Nahiz eta froga idatzirik ez egon, gerra zibilean, lurra mugitzean aurkitu ziren arrasto pila bat, horien artean zilarrezko sei moneta. Baina arrastorik nabariena zeramika arrastoak dira, herriko barazetan asko agertu direnak, honekin batera burdin fundizioko hondakinak ere agertu dira. Hondakin hauek, froga garbia dira erromatarrek Eskoriatzan burdinolak zituztela jakiteko. Burdinolez ditugun lehen informazioek diotenez, hauek mendian aurkitzen ziren, mehatze



Errementari bat jo eta ke lanean burdinari forma emanez

RELE
Faustino Legazpia
Tel. 943- 71 40 72

TXALAPARTA
JATETXEA
Tfnoa.: 943 715046

Argitalpen honen edizioko laguntzaile
En la edición de esta publicación colabora

kutxa *gizarte-ekintza obra social*

inguruetan. Gainera inguru horietan aurkitzen dira burdinolekin zerikusia duten toponimia arrasto gehienak: Olaun, Olaeta, Mendiola, Olabegoitia, Olano, Meazulo, Azarola, Markiola, Sarriola, etabar. M. Laborde historigileak dioen moduan " toponimo guzti hauen erroa -ola-, aintzinako garaietatik, burdina lantzen zen lekuetara soilik egiten zuen erreferentzia". Eskoriatza eta Aretxabaleta, 1497an Gipuzkoako Hermandadean sartzeko aurkeztutako zerrendatan, orduan Leniz bailara edo aranaz ezagutzen zenak, bost burdinola edo ferrerixia zituela agertzen zen. Hauen zeregina burdinetik abiatuta erremintak egitea zelarik. Erdi Aro amaieran, energi hidraulikoaren laguntza erabiltzen zuten mailu eta auspoak mugitzeko eta horregatik ibai ertzetara mugitu



Eskoriatzan burdinola ugari zeuden aintzinan Olazar da adibide garbiena

1498an Gipuzkoako Hermandadean sartzeko aurkeztutako zerrendatan, Eskoriatza inguruak bost burdinola edo ferrerixia zituela agertzen zen.

ziren burdinolak. Honen adibide garbia, Olazar-en aurkitzen diren arrastoak dira. Garai batean bertan burdinola bat aurkitzen zenaren froga idatziak ere badaude. Horrela dio "Diccionario Geográfico

Universal de Barcelona"-k, " en Escoriaza, una ferreria que labra 600 quintales de fierro al año". Hau 1761. urtean eginiko aipamen labur bat da. Burdinola honen arkuak, kanala eta presa oraindik bertan ageri dira.

Mende honen haseran eta lehenago zegoen burdinola baten estrukturaz baliatuz, leku berean, eraiki zen aluminiozko erabilgarrien lehen lantegia. Honek atea irekiko dizkio industrializazio modernoari, Eskoriatzan. Lantegi honek, Olazar izena mantendu zuen lekuz aldatu arte, eta Olabarra izena jarri zioten. Azkenik, energia hidraulikoa energia elektrikoa bilakatu zen eta mende erdirarte iraun zuen "Sociedad Eléctrica de Escoriaza" sortu zen.

San Pedrotan ikusgai izango dugun bigarren lanbide zaharra alpagatero edo zapatariarena izango da. Hau ere oso aintzinakoa da eta ohitura handia dago bai hemen baita Euskal Herriko beste herri askotan ere. Alpagatak, albarkak eta

beranduago katiuskak egiten zituzten zapatarien historia ezagutu ahal izango dugu erakusketa honetan. Oinetakoek izandako eboluzioa handia izan da eta garai batean kañamoa erabiltzen bazen, ondoren espartoa erabili izan zen, eta azkenik artisauek garaiaren amaieran, Bangladesh eta India-tik ekarritako yutea erabili izan zen. Garai modernoan kautxoaren sarrerarekin albarkak asko aldatu ziren eta kautxoak izatera pasa ziren, euriarentzat hobeak zirelako eta hauen prezioa ere merkeagoa zelako. Ondoren, katiuska izeneko oinetakoak ere agertu ziren. Hau guztia XIX. Mendearrekin batera etorri zen. Beraz, badakizue, bi lanbide hauei buruz gehiago jakin nahi badezute, San Pedrotan hurbildu zaitezte Museo Eskolara edo eta agertu zaitez kalean herrementariak egingo duen erakusketara. Museo Eskolan bi lanbide hauei buruzko informazio zabala izango duzue nahi izanez gero.

Pub ALDATZ

Tfnoa.: 943 714171

Musika ona entzun dezazun

OTZETA jatetxea


Aranburuzabala kalean

ireki berria

Tfnoa.: 943 71 55 07

FELIX AZKARATE ETA MAITE GARZIA MENDE BUKAERA EZBERDIN BAT PAINEKO DORREETAN

Oraindik orain ere, Hornosko lurmuturra aipatzeak errespetua sortarazten omen dio itsasgizon gogorrenari. Han, munduko muturrik hegokoenean, haizeak eta izotzak azken mugaraino eramaten dute biziraupenaren apustua. Baina guda honek eten bat izaten du urtero, eta egunak gauari orduak kentzen dizkion neurrian, apurka -apurka bistaratzen joaten dira bederatzi hilabetez lainoen erreinu diren laku, baso eta paisaia zoragarriak. Uste baina gehiago dira bertaraino hurbiltzea nahi izan duten eskoriatzarrak; orain gutxi Fermin Lezetak Hegoamerika osoan zehar eginiko bidaia kontatu genizuenean ere, eman genizuen Torres del Paineiko Parke Nazionalera eginiko bixitaren berri; oraingoan baino, gure begirada lasaiago pausatuko dugu leku honetan, eta Felix Azkarate eta Maite Garzia gidari ditugula, Chileko azken mugaraino joango gara.




Pico Catedral, Paineiko Dorreetako ikusmira ezagunenetakoa bat. Haize bortitzak zuhaitzen adarrak okertuta haztea eragiten du

Beste hainbat bidaiari eta mendizalaren antzera, aldizkariren batean ikusitako argazkiek eman zien Felix eta Maite Paineiko Dorreen berri lehen aldiz. Berehala erori ziren zeruraino igotzen diren granitozko erraldoiek eragiten duten lilura hortan, eta ihazko urte bukaeran iritxi zitzaizen bertara joatearen aukera. Motxak dira Gabonetako oporrak, eta garestia da Chilera bidaiatzea; ia bertan behera gelditu zen oporraldia, 200.000 pezetatik gora eskatzen bait zizkieten bidai agentzian Santiagorako hegaldiagatik, baina azkenean txartel merkeago bat lortu eta dena prestatu zuten bigarren aldiz "putzua" zeharkatzeko. Abenduaren 21ean, Santamas egunez irten ziren Bilbotik, Frankfurten eskala egin eta 22an Santiago de Chilera heltzeko.

"Ciudad de Vitoria" zuen izena Santiagon gaua egiteko aukeratu zuten hotelak, eta hemen hasi ziren Chilen hotel batean lo egiteagatik ematen diren "klabadak" jasotzen. Ez zegoen hiriburuan lasai egoteko betarik, eta biharamonean hartu zuten Punta Arenasera dauden 3000 kilometroak egunero lotzen dituen hegazkina; hurrengo egunean Puerto Natalesera heldu ziren, sei orduko autobus bidaia neketsuaren ondoren, azkenean Paineiko Dorreen Parke Naturalaren atarian gelditzeko. Mundu osoan Hego Polotik gertuen dagoen "hiria" Ushuaya den arren, Puerto Natalesek du Amerikar kontinentearen barruan dagoen hiririk australena izatearen ohorea (edo desgrazia, benetan gogorra izan behar baita neguak bederatzi hilabete irauten dituen toki batean bizitzea). Bertatik irteten dira Paineiko Dorreen Parkera sartzeko bidea diren turistentzako furgonetak, eta hala egin zuten Felix eta Maitek Abenduaren 24ean. Parke osoan zehar badaude otorduak eman eta lo egiteko lekua eskaintzen duten hainbat aterpetxe,

baina prezioak garestiegiak zirenez, erdibide bat, aterpetxeetan jan eta kanpindendan lo egitea erabaki zuten. Parkean sartzeko baimena ez zen horren garestia, 2000 pezeta inguru, eta laister hasi ziren ibilbidez gozaten. Laku eta mendiek eskaintzen zuten ikusmirari bertako babestutako faunaren ikusgarritasuna gehitu zitzaion: larreetan guanacoak (Andeetako lllamen antzeko animaliak) azeriak eta ñanduak ageri ziren, flamenko eta zisneak ur putzu eta lakuetan, condorrak eta caranchoak zeruan...inondik agertzen ez dena puma omen da, ixila, ikustezina, fidakaitza bera. Behin Parkean sartuta, katamaran batean Pehoe lakua zeharkatu eta ekialdeko ertzean dagoen aterpetxera jo zuten.



egitea da. "W" a egitea erabaki zuten, eta ttipi-ttapa, bailara hauetan zehar ibiltzeari ekin zioten. Eguraldia argia izan arren, hotza da udaran ere, eta gehienetan ondo tapatuta ibili beharra zegoen. Gutxien espero zenean, hego polotik datorren haize bortitzak bazterrak nahasteari ekiten zion, latitude haietan zuhaitzek duten forma bitxiari azalpena emanez. Lainoek konturatu orduko estaltzen zizkieten mendi tontor zorrotzen ikusmira, berauek ikustearen pribilegioari garrantzi gehiago emanez bezala. Horrela eman zituzten Eguberri ondorengo egunak.

Uda australeko egunik onenak izan arren, turista gutxi zebilen handik, baina hala ere

bazirudien bixitatzen zuten aterpetxe bakoitzean sorpresa berri bat zutela zain; Pico Catedral inguruan dagoen Perros izeneko refugioan, adibidez, bertan lanean ari zen durangar batekin egin zuten topo, eta jakin bazekiten Iñurategi anaiak Jon Lazkanorekin batera mila metrotik gorako ormak dituen Paineiko Erdiko Dorrea igo nahian zebiltzala; hala ere, sorpresarik handiena Las Torres izeneko hostalean izan zuten, bertan elkartu bait ziren Jabi Zurbano eskoriatzarrarekin. Hegoamerika osoan zehar eginiko txangoan haraino heldu zen Jabi ere, eta halabeharrak bertan elkartu nahi izan zituen, antza.

Paineiko Dorren Parkea bixitatzeko, bi aukera ditu bertara hurbiltzen denak: Bata "W" deitzen dioten trekkinga egitea da, dorreen artean dauden hiru bailaratan sartu eta izki horren forma duen ibilbidea egiten duena. Bidearen puntu ezberdinetan dauden aterpetxeek markatzen dute nondiknorakoa, eta horrela, zonalde hartako hiru mendi multzoak hurbiletik ezagut daitezke (nolabait kokatzearen, Pico Catedral ingurukoa mendebaldean, Almirante Nieto erdialdean eta Paineiko Dorreetakoa ekialdean). Bigarren aukera mendiak inguratuz doan bidea

Trekkinga bukatu ondoren ere, beste bi txango egin ahal zituzten inguruetan, bata Salto Grande izeneko urjauzi izugarria, eta Parkeko glaziareak bixitatzeko bestea. Urteberri eguna heldu zen, eta azken asteetan pasatutako neke, gose eta gabeziei barre eginez, "Las Torres" era itzuli zen bikotea, milurteko lehen eguna otordu paregabe batekin, leku paregabe batean eta jai giroan ospatzeko. Konturatu orduko, Santiagora bueltatu eta etxerako bidea hartzeko ordua iritxi zitzairen. Opor motzak izan ziren, eta garestiak akaso, baina Felix eta Maitek esandakoaren arabera, merezi izan zuela dirudi, ezta?



Guanacoak Almirante Nieto mendiaren itzalpean. Atzean, Paineiko Dorreak.

UDARAKO LIBURU GOMENDAGARRIAK

Iritsi zaigu uda eta honekin batera oporrak. Oporretan eguraldi onarekin, jolastu, itsasoan edo igerilekuan bainatu, bero pixka bat pasa eta nola ez, ipuiak irakurriko ditugu. Uda honetan irakurketarekin ondo pasa nahi baduzu, hemen duzu aukera ederra. Abentura eta istorio izugarriak ezagutu nahi badituzu, aukeratu zerrenda onetako libururen bat, eta irakurri, ez zara damutuko...

3 urtetik aurrera

- **Buruko hura nork egin zion jakin nahi zuen satortxo** / Wemer Holzworth eta Wolf Erlbruch.- Kalandraka, 1999.
- **Nola dastatu ilargia?** / Michael Grejniec.- Kalandraka, 1999.

6 urtetik aurrera

- **Nenet txikia** / Patricia Geis.- Tarttalo, 1999.
- **Non dago pinotxoren sudurra?** / Carles Cano eta Incha.- Elkarlanean, 1999.
- **Gaur bete ditut sei urte** / M. Antonia Savall eta Mercé Aránega.- Elkarlanean, 1999.

8 urtetik aurrera

- **Ileri** / Fina Casallerrey.- Desclée, 1999
- **Usoa, hegan etorritako neskatoa** / Patxi Zubizarreta eta Asun Balzola.- Erein, 1999.
- **Izeba txikia** / Mariasun Landa.- Erein, 1999.

10 urtetik aurrera

- **Nire kuleroak** / Anjel Lertxundi eta Antton Olariaga.- Elkarlanean, 1999
- **Arreba izutu operazioa** / Thomas Brezina.- Desclée, 1999.
- **Banbulo: Ternuako penak** / Bernardo Atxaga.- Erein, 1999.

12 urtetik aurrera

- **Otsoaren begia** / David Pennac.- Ibaizabal, 1999.
- **Nahiago nuke mutila banintz!** / David Duran.- Erein, 1999
- **Joko bikoitza** / David S. Williams.- Elkarlanean, 1999

UDARAKO LIBURU
GOMENDAGARRIEN ZERRENDA,
ESKORIATZAKO HAUR LIBURU
MINTEGIAK PRESTATU DIGU.

TORTOLIS TXOKOA

LEHIAKETA

ZER DA TORTOLIS?

- ARKUMEAREN BELAUNEKO HEZURRA
- ASTOAREN OINEKO AZAZKALA
- PAGOAREN FRUITUA


IZENA:

ABIZENAK:

TELEFONOA:


ERANTZUNA:

ORRI HAU BETE ETA ERAMAN LUDOTEKARA. BERTAN ZOZKETA BAT EGINGO DA ETA OPARITXO BAT ESKURATZEKO AUKERA IZANGO DUZU. ANIMA ZAITEZ!!!



Cuenta Joven
de Caja Laboral
El servicio
más completo.

**Euskadiko Kutzaren
Kontu Gaztea.
Zerbitzuetan
osatuen.**


**CAJA LABORAL
EUSKADIKO KUTXA**



MIRENTXU

Taberna

Tfnoa: 714167

Kafe goxoa hartzeko


BENTA-MOTZ

**Gaztañadui kalea
Tfnoa.: 714822**

GOIZEKO 6ETAN ZABALIK

EGUNEROKO MENUA 900 PTA.

Gero eta makal gutxiago daude gure inguruan, zer uste duzu gertatuko dela San Juanetako txopuakin etorkizunian?



Joxe Mari Eskibel eta Markos Diaz de Gereñu

Pago ugari daz, txopua beharrien pinua ez, txopuak egon badaz, igual hurrunago baina ugari daz. Txopuak urrin egoten diez, baina badaz eta gaur egungo gazteiek ez dakite txopua heltzen.




Felisa Oruna

Nere gustoz txopua politagoa da, betikoa delako, baina ez bada lortzen ez dakit zer egin beharko dan, niri pinua behintzat ez zait gustatzen, egongo da beste zuhaitz hobego bat.



Javier Eizmendi

Ez du igual meriturik kostumbria da txopua jartzeko, eta aldatzen bada ez du zentzurik. Nik uste dut makala mantendu behar dela.



Manuel Ramos

Ohitura bat denez ez litzateke aldatu beharko, behintzat makalak dazen bitartean, ez badira desagertzen.



Fatima Martins

Ez zait ondo iruditzen zuhatzik gabe geratzen ari garelako, baina zerbait jarri beharko da, ezta?.



Jon Leturiaga

Igual Errioxatik ekarri beharko dituzte, han mordo bat daz eta.

carpinteria
leniz
ARozTEGIA
Tfnoa. 943714936

ANGEL
Aseguroak
Autoak, Etxeak,
Bizitza, Istripuak, ...
Arana, 19 Behea
Tf. 943-715203 • ESKORLATZA

Gozetxiki
Gozetxia
Eskorlatza
Ondo jarduera jarduera

Eskoriatza, 00.05.29

"EGIN ITZAZU 100m EUSKAL HERRIAREN HITZAREN DEFENTSAN, EUSKAL PRESOEN ESKUBIDEEN DEFENTSAN"

Eskoriatzar agurgarriok,

Euskal Presoak Euskal Herrira! Euskal Herri osoko gehiengo sozial, sindikal zein politikoaren babesa jaso du azken urte hauetan. Halere, euskal presoak, eta familiarrok, sakabanaketa pairatzen jarraitzen dugu eta Euskal Herriaren hitzak errespetatu gabe jarraitzen duen honetan, urrats berri bat eman behar dugu: Euskal Herria iparraldetik hasi eta lurralde osoa zeharkatuko duen martxa abian jarriko da Ekainaren 14ean hasita, Uztailaren 12an, gure herritik pasatuko da. Horretarako zuen parte hartzea eskatzen dugu oraingo honetan. Ehun metro egin dezazuen, euskal presoek eskubideen defentsan eta Euskal Herriko gehiengoaren borondatearen defentsan urrats berri bat eman dezazuen eskatzen dizuegu.

Zer aldarrikatzen dugu martxa honetan?

- Euskal preso politikoen eskubideak errespetatzea: (3/4ak beteak dituztenak eta gaixorik daudenak kaleratzea, eta Euskal Herriko kartzeletara ekartzea).
- Euskal Herriaren hitza eta erabakiaren defentsa.
- Paris eta Madrilak gure herriaren eskubideak errespetatzea.

Guztion konpromisoa beharrezkoa dela deritzogu, hori dela eta idatzi honen bidez zuegana zuzendu nahi dugu ekimen honetarako atxekimendua eskatuz.

Besterik gabe erantzunaren zai gelditzen gara eta alde zurekin jaso ezazue gure eskerrik beroenak.

EUSKAL PRESOAK EUSKAL HERRIRA!!! GURE HERRIAK DU HITZA!!1

Eskoriatzako Euskal Presoak Euskal Herrira taldea

Edozein gairi buruz, zure iritzia azaldu nahi izanez gero, utz ezazu zure idatzia Kultur Etxean, eta guk Zabalik atalean argitaratuko dugu. Eskutitza argitaratua izan dadin beharrezkoa da, iritzia izen abizenekin sinatuak egotea edo taldeen kasuan, taldearen izenarekin aurkeztea.

goxotxiki

GOZOTEGIA
 Hidalgua, 3 • Tf. 943 715436
ESKORIATZA
 Ondo pasau herriko jaietan!

AKEITA
TABERNA
 5etatik zabalik
 Tfnoa.: 943 715094
KAFE, PINTXO
eta BOKADILOAK


bedardenda
 Tfnoa.: 943 714327
ESKORIATZA

EROSLE
HARATEGIA,
FRUTATEGIA eta
BESTELAKOAK
 Aranburuzabala, 3
 Tfnoa: 943 714546

GAIA

Erdiko kaleko espaloiak urte bat bete duten honetan eztabaidagai ...

Urte betera doa erdiko kalea zulatu ostean espaloi berriak jarri zituztenetik, eta gogoan daukat oraindik hasierako zalantza espaloioek errepidearen nibel berean zeudelako eta bion artean ez zegoelako, ezta hurrik ere, zaharrekin zegoen zuloa.

"Arriskutsua izango ete dok?", nioen neurekiko

Ba, ez, ez da arriskutsua gertatu, ez da istripurik izan arrazoi hau dela medio. Gainera, inork ez dit aurka egingo esaten badut hauek askoz dotoreagoak direla, eta honetaz gain, abantailak baino ez dizkigutela ekarri. Batetik, aparkaleku gisa duten funtzionaltasuna ezin hobea da, aparta; bestalde, Polleroneko inguruan bi auto gurutzatzen direnean, errepide tarte estu horren zabalgunek modura espaloia horrela uzteak halabeharrez aparteko gaitasuna duen ingeniariaren baten lana behar du (hemengoa bere promozioko lehenengoa izango ete zen?); eta zerdioztazue Kajalaboralera diru eske edo Xantirenera primitibia botatzera goazenean, espaloi gainean kotxea uzteko dugun tokiaz, e? Ezin hobeto, baietz?

Oinezkoak kexu direla pasatu ezin direlako? Nire kontrario honek alabaren kotxekapota ataritik ateratzeko edo bertara sartzeko, behin baino gehiagotan parean zegoen autoreen baten gainetik bota behar izan duela? Tontakeriak! Gauzak nahastu gura eta edozergatik demanda egin beharra! Eskerrak, gainera, udaletxeak eta "autoritateek" ez dietela jaramonik egiten hauen demandei; ea agintaritzaren kolaborazioarekin lortzen dugun espaloiei dagokien funtzioa -aparkalekuarena, jakina- "in æternum" beteaz jarraitzea.

Hala bedi, txikito!

Espaloi: "*Kale, hiribide etab.en bi bazterretara galtzada-zorua baino pixka bat goraxeago eta oinezkoak bertatik ibiltzeko den kale-zati edo espazio zolatua*"

Horra espaloia zer den!. Eta ez da nik neuk botatako definizioa, Klaudio Harluxet Fundazioak argitaratutako Euskal Hiztegi Enziklopedikotik jasotakoa da. Eta definizioari lotuko natzaio espaloi zaharrak defendatzeko, egun ditugun espaloiek ez baitituzte betetzen baldintzatariko bi: galtzada baino pixka bat goraxeago egotearena eta oinezkoek bertatik ibiltzeko izatearena. Bateonbategi esango du bai, ea non jartzen duen oinezkoentzat besterik ez direla, horrelakorik ez baita azaltzen aipatu definizioan. Eta egia da, jarri, jarri, ez du jartzen baina (hartu arnasa esaldi korapilotsua dator eta) definizioaren osagarri gisa, Udaletxean agintean dagoen partidu, koalizio edo danadalakoak Udalerako hauteskunde kanpainan argitaratutako folleto ederdotorean, hirigintza alorreko laugarren puntuan jartzen zuena hartzen badugu (uuuff!!) dena argiago geratuko da. Eta zer jartzen zuen ba? ... "oinetzkoentzat espaloiak berreskuratu".

Beraz ba ez naiz lehenengoak edo oraingoak zeintzuk hobe diren eztabaidan hasiko, garbi baitaukat lehenengoak espaloi zirela eta oraingoak ez, oraingoak Compostela futbol taldearen zelaia bezala "multiusos" baitira (honatx sanpedroetarako falta zen ideia: espaloi-futbol txapelketa bat).

Bukatzeko, ez dut eskatzen espaloi zaharrak berreskuratzea, ezta oraingoei altura gehiago ematea ere (azken finean hau oinezkoentzako segurtasuna besterik ez da eta badago hori lortzeko beste biderik) baina bai espaloiei bere funtzioa ematea: oinezkoen gune izatea.

jone eta jojo

Dema gogoak atal honetan, gai ezberdinen inguruan iritzi kontrajarriak azalduko dituzte bi kolaboratzailek. Iritziak ez dute zertan idazten duenak pentsatzen duenarekin bat etorri, hori dela eta ezizenez sinatuta datoz. Hala ere norbaitek beraien izena jakin nahi balu ez legoke arazorik.

KONTZIENTZI ERAGOZPENA

* Intsumisioa edo objezioaren gainean zalantza edo arazorik baduzu, pasa zaitez Gazte Bulegotik eta bertan emango dizugu paperak tramitatzeko behar duzun informazioa.

TXARTELA

* Nazioarteko Gazte, Ikasle edo Aterpetxe Txartela eskuratzeko aukera izango duzu hemendik aurrera Arrasateko Gazte Bulegoan.

LANA

* Amurrioko Musika Eskolarentzat irakaslea behar da. Epea: uztailak 7.
* Bilboko Orkestra Sinfonikorako musikariak behar dira. Epea: uztailak 15.

UDAKO IKASTAROAK

* Debako Arte Eskolak, udarako hainbat ikastaro antolatu du: grabatu kalkografikoa (hastapena), zeramika (hastapena), brontzea, marrazketa eta pintura, marmol eskultura, egur langintza.

BEKAK

* Enpresak sortzeko programa jarriko du martxan Saiolanek. Enpresa arloko ikastaroa, enpresa projektua eta ekintza berria merkaturatzeko laguntza emango da. Epea: uztailak 7.

* Leonardo da Vinci beka, Europako enpresatan praktikak egiteko aukera, ikasketen azken urtetan egon edo ikasketak bukatu berri izanik, lan esperientziarik ez dutenei zuzenduta. Epea: uztailak 14.

DIRULAGUNTZAK

* Emakume Sailak, Komiki ez sexisten III. lehiaketa antolatu du. Lanak 17x24 zmk edo proportzio bereko formatu bertikalean eta 2-4 orri bitarteko luzerakoak. Txuri-beltzean edo koloretan, euskaraz nahiz gaztelaniaz. Epea: uztailak 21.

* Gasteizko Indar Kultur Zentruak "Gaztebideo", gazteen bideo amateurraren VIII. Erakustaldia antolatu du. 99-2000 urtetan egindako lanak, 20 minututik beharakoak eta antzezle gehienek 21 urtetik behera izan beharko dute. Epea: uztailak 31.

* "Ignazio Aldekoa" ipuin lehiaketa antolatu du Arabako Diputazioak, euskaraz edo gaztelaniaz, 12-25 orrialde bitarteko luzeeran idatziak. Epea: irailak 8.

* Zumarraga-Urretxuko Udalak hainbat lehiaketa antolatu du: argazki, pintura, bertsopaper eta komiki lehiaketa. Epea: irailak 8.

* GAZTEMANIAK! CDa argitaratzeko deialdia egin du Gipuzkoako Diputazioak. Kontratu diskografikorik ez duten musika taldeekin osatutako CD bat izango da. Konpaktoa eta taldeari buruzko informazioa bidaltzeko epea: irailaren 9ra arte.

* Nafarroako ikusentzunezkoen sorkuntza lehiaketa, 98tik aurrera bideoan edo CD-ROMean grabatutako lan artistikoak edo interneteko proiektu artistikoak aurkeztu ahal dira. Epea: irailak 15.

* Udaleko Gazteria Zerbitzuak, urteroko argazki lehiaketa antolatu du. Aurtengo lema, "Gazteak eta arrazakeria", zuri-beltzean edo koloretan, gehienez hiru argazki aurkez daitezke. Epea: urriak 11.

JAIOTZAK

Leire Sierra Gomez
ekainaren 4ean

EZKONTZAK

Azken hilabete honetan ez zaigu inor ezkontzera animatu Eskoriatzan,



ESKORIATZA

Udaletxea	943-714407
Udal Bulegoak	943-714532
Udaltzaingoa	943-714407
Euskaltegia	943-792168
Kultur-Etxea	943-714688
Gizarte-Laguntzailea ...	943-714688
Kiroletxea.....	943-715328
Liburutegia.....	943-713135
Luis Eceiza.....	943-714938
Jose Arana-Almen Ikastola	943-714486
Almen	943-714964
Museo-Eskola	943-715453
Ze Barri?	943-715434
Talde Antimilitarista ...	943-714537
Irakasle Eskola	943-714157
Osakidetza	943-714452
Telesko	943-714917
Taxia	943-714059

BESTELAKOAK

Eskualde-Ospital (Arrasate) ...	943-795300
Gurutze-Gorria (Bergara)	943-765576
Ertzaintza (Arrasate) ...	943-797199
Suhiltzaileak (Oñati) ...	943-792800
Renfe (Zumarraga)	943-721515
Renfe (Gasteiz)	945 232030
Pesa (Arrasate)	902 101210
Larrialdiak (Arrasate)...	943 771043
SOS Deiak	112

ORAIN DELA



San Pedroak, 1948. urtean. Gerra osteko argazkia dugu hau. Orduan ere jaiaz gozaten ere ongi zekitela argi agertzen zaigu argazkian. Jende ugari ikus daiteke bertan, Buruhandi edo Kabezudo bat ere agertzen da atzekaldean. Uztailaren lehen eguna da eta

udako eguzki gordinetik babesteko batek baino gehiagok txapela jarri behar izan zuen. Ikusten al duzue ezagunik koadrila handi honetan? Orain 65-75 urte artean izango dituzten Eskoitzarrak ageri dira argazkian. Orain bai?



Chapime Tailerrak

Araba etorbidea, z/g
ARRASATE
Tel.: 943 79 45 22



CITROËN XSARA BERRIA

Picasso

Talentuak mundua ikusteko era zabalagoak daudela frogatzen digu beste behin. Tokiaren kontzeptu berria zabaltzen digu Citroën Xsara Picassok, bere osotasunean: luzea, zabala eta altua. Monobolumena, modulatu; bertan bizi ere egin daiteke. Bidaientzat eroso eta garritu nahi denarentzako edukiera handia duena. Teknologia aurrerakoiaren irudimen zorrotzenaren esku jarri da: barne ordenagailua. Pantaila digitaleko klimatizagailua. Modubox. CD, Irratia, kontrolagailuak bolantean dituelarik. Gauzak gordetzeko 25 toki. ABS frenatzeko banatzaille elektronikoduna. Alboko eta aurreko airbag-ak. Lagunduriko direkzio aldakorra. HDI (Common Rail) Diesel eta Gasolina (117 CV.arte) motorrak. Citroën Xsara Picassoren inspirazioa bameratuta dator.

INSPIRAZIOA GUZTIAREN GAINETIK

EZ DAKIZU CITROËNEK ZUGATIK ZER EGIN DEZAKEEN.

autopista



Coche COMPARATIVA

ford focus

bere klaseko onena

ford focus-ek auto salduenen artean harrera onena lortu du.

	Batez bestekoa	Jokaera/egonkortasuna	Diseinua/estetika	Bizigarritasuna	Direkzioa	Erosotasuna	Ziurtasuna	Soinu maila
ford focus	8,29	9,49	9,41	9,29	9,05	8,88	8,68	7,83
Volkswagen Golf	8,28	8,34	9,02	7,79	8,77	8,6	8,65	7,33
Opel Astra	7,85	8,6	9	7,77	8,33	8,1	8,16	7,65
Citroën Xsara	7,61	8,17	8,56	8,22	8,23	8,15	7,96	6,58
Renault Megane	7,6	7,66	8,77	7,93	7,91	7,97	7,99	6,09
Peugeot 306	7,31	8,37	8,41	7,7	7,94	7,44	7,97	5,81
Segmentuaren media	7,55	8,02	8,52	7,86	8,07	7,73	7,96	6,43

Iturria: Autopista aldizkariak 322.000 auto gidariren artean egindako 10. Makro Inkesta. (2.124. zenb., 2000ko martxoaren 28tik apirilaren 3ra arte.)

MUGARRI

DEBA GARAIKO
BANATZAILE OFIZIALA

Araba etorbidea, z/g • ARRASATE

Tel.: 943 79 07 44 / 943 79 07 54

